

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE**CULTURA Y TURISMO**OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Corpas kontseilaria Gares, Lizarra eta Muesko hainbat hotel-jarduera eta -proiektu ikustera joan da

Bisitatu dituen hoteletatik hiruk Kultura eta Turismo Departamentuaren laguntzak jaso dituzte, 494.000 euro hain zuzen ere

Viernes, 15 de abril de 2011

Juan Ramón Corpas Mauleón Kultura eta Turismo kontseilaria Gares, Lizarra eta Muesko hainbat hotel-jarduera eta -proiektu ikustera joan da. Herri horietara Carlos Erce Turismoko zuzendari nagusiak lagunduta joan da.

Garesen, kontseilariak El Cerco landa hotelera egin du bisita. Hotela herriaren erdigunean dago eta Kultura eta Turismo Departamentuaren laguntzak jaso ditu, 181.535 euro hain justu ere. Eraikinaren arkitektura tradizionala da eta sotoa, beheko solairua eta beste lau solairu ditu.

10 logela eta 17 leku finko ditu. Sotoan galdara gela bat, biltegi bat eta langileentzako komuna daude. Beheko solairuan sarrera, harrera mahaia, janlekua eta sukaldea ipini dituzte. Lehenengo solairuan gela bikoitz bat, egongela bat eta guztientzako komunak daude. Bigarren banako lau logela jarri dira. Hirugarrenak banako bi logela eta hirukoitz bat ditu. Azkenik, laugarren solairuan bi logela hirukoitz eta bulego bat daude. Jabeek gaur arratsaldean irekiko dute hotela.

Jarraian, kontseilaria Lizarrako erdigunean dagoen Chapitel hotelera joan da. Lau izarreko ostatua da eta Kultura eta Turismo Departamentuaren 200.000 euroren laguntza jaso du. Horrez gain, Nafarroako Gobernuak hotel horri Sonagar sozietateak (Sociedad Navarra de Garantía Reciproca) Nafarroa Bermea (600.000 euro) ematearen aldeko txostena egin zuen.

Hotelak fatxada mantendu eta barrualdea berritu du. Sotoa, beheko solairua eta beste hiru solairu ditu. Zehazki, 14 logela ditu eta 27 leku finko. Honelaxe dago banatuta eraikina: sotoan maletak biltzeko gela, bulego bat eta aparkalekua daude. Beheko solairuan harrera mahaia, egongela, janlekua, sukaldea, aldagela bat, biltegi bat eta zerbitzu orokorrak jarri dituzte. Lehen solairuan bost logela bikoitz eta bulego bat eta, bigarren solairuan, beste bost logela bikoitz daude. Azkenik, hirugarren pisuan hiru logela bikoitz (horietako batek egongela du) eta egongeladun banako logela bat ipini dituzte. Jabeek gaur arratsaldean irekiko dute hotel azpiegitura berria.

Azkenik, kontseilaria Muesen dagoen hiru izarreko landa hotel bat ikustera joan da. Hotela eraikitzeko azken fasean dago. Nafarroako Gobernuaren Kultura eta Turismo Departamentuaren 113.085 euroren laguntza jaso dute hotela eraikitzeko.

Zehazki, ostatuak zortzi logela bikoitz izango ditu eta horietako batek egongela. Guztira 16 leku finko izango ditu. Hotela eraikin baten albo bateko mehelinean dago eginda, forma nahiko angeluzuzena du eta sotoa, beheko solairua, lehen solairua eta bigarren ditu, azken hori txapitula-formakoa. Barrutia Kulturako Zuzendaritza Nagusiko Nafarroako Kultura Ondarearen Ondasun Higiezinaren inbentarioan dago jasota.

Sotoan banatzailea, janlekua eta sukaldea daude. Beheko solairuan sarrera, harrera mahaia eta kafetegia, bi egongela, banatzailea, maleten gela eta instalazioetarako lau gela jarri dira. Bestalde, lehen solairuak lau logela ditu, bakoitza bainugela banarekin, eta bigarren solairuak hiru logela, bakoitza bainugela